

Udal honetako Udaltzarak 2009ko maiatzaren 14ko ohiko bilkuran, jarraian agertzen den udal-erabakia hartu zuen, besteak beste:

7.- PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, EKONOMIKOKI ABANTAILA GEHIAGOKO ESKAINTZA EGINA, ETA ADJUDIKAZIOARAKO HAINBAT IRIZPIDE TARTEAN, “OKENDOKO AIU A-1en EGINDO DEN ERREFORMA ETA UDALETXEAREN ZABALTZE-OBRA” EGITEKO BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKAZIOA EGIN DA.

Prozedura irekiaren bidez, ekonomikoki abantaila gehiagoko eskaintza egina, eta adjudikaziorako hainbat irizpide tartean, Okendoko AIU A-1en egingo den erreforma eta udaletxearen zabaltze-obraarako kontratazioko mahaiaren aktaren edukiaren berri ematen da

Ikusirik, 2008ko abenduaren 9ko bilkuran onartu zela prozedura irekiaren bidez, ekonomikoki abantaila gehiagoko eskaintza egina, eta adjudikaziorako hainbat irizpide tartean, Okendoko AIU A-1en egingo den erreforma eta udaletxearen zabaltze-obraarako espedientea.

Ikusirik, 2009ko urtarrilaren 15, 21 eta 27an argitaratu zela lizitazioa interesatuek beraien proposamenak aurkez ditzaten: Europa Elkarteko Egunkari Ofizialaren gehigarrian, Estatuko Buletin Ofizialean eta Probintziakoan. Baita kontratazio organoko kontratatzailearen perfila ere.

Ikusirik, lizitazioan zehar espedientean aipatzen diren proposamenak aurkeztu zirela,

Ikusirik maiatzaren 7ko datarekin kontratazioko mahai osatu zela, eta Balorazio Teknikoa ikusita kontratazio organoa den Udaltzari, Guillermo Ibarгойen S.A. enpresa ren aldeko behin-behineko adjudikazioa proposatzea erabaki zuen kontratazioko mahaiak, horretarako, zegokion dokumentazioa azterturik, eta Sektore Publikoko kontratazioa arautzen duen urriaren 30eko 30/2007 legearen bigarren xedapen gehigarriari zein 135.3 artikulua dioenari jarraiki.

Udaltzaran botatuta. 10 boto alde atera ziren (8 PSE-EE-PSOE, 1 EB-B, 1 PP), eta 5 kontra (2 EAJ-PNV, 1 PCLO, 1 José Goikoetxea Goikoetxea, 1 Erramun Baztarrika Aldasoro), hurrengo akordioak hartzen dira:

Lenenik.- Lizitazioa egokitzat jotzea eta Guillermo Ibarгойen S.A. enpresaren aldeko behin-behineko adjudikazioa egitea aipaturiko prozedura irekiaren bidez, ekonomikoki abantaila gehiagoko eskaintza egina, eta adjudikaziorako hainbat irizpide tartean, Okendoko AIU A-1en egingo den erreforma eta udaletxearen zabaltze-obraarako, Zazpi miloi berrehun eta hirurogeita bederatzi mila bostehun eta hogeita hiru miloi hamar eurotan (7.269.520,70.-€), gehi BEZari dagozkion miloi bat ehun eta hirurogeita hiru mila ehun eta hogeita hiru koma hogeita hamaika euro (1.163.123,31.-€). Guztira zortzi miloi lauhun eta hogeita hamabi mila seiehun eta berrogeita lau koma bat euro (8.432.644,01.-€). Proposamen egokiena izan da, Homologaziorako Informe Teknikoari begira aurkeztu diren eskaintzen artean gehiengoko 80,25 puntuazio atera duelarik, Administrazioako Klausula Partikularren Pleguan jasota dauden iritziak aztertuz.

Bigarrenik.- Kontratuaren behin-behineko adjudikazioduna den Guillermo Ibarгойen S.A. **enpresari jakinarazi eta eskatu** 15eguneko epean, jakinarazpen hau jasotzen duenetik kontatuta, jarraian zerrendatzen dokumentazioa aurkeztea:

- a) 363.476,04.-€ko behin-betiko bermearen konstituzioa kreditatzen duen agiria.
- b) Giza-Asegurantzarekiko zein administrazioarekiko kontuak garbi dauzkala erakusten duen agiria, eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela erakusten duena, aipaturiko zergako matrikulan baja ez dela izan jasotzen duen aitorten arduratsua. Hori guztia Administrazioako Klausula Partikularren Pleguaren 23. Klausula betetzeko.
- c) Pleguaren 25. Klausulak eskatzen duen kreditazioa, Azpikontratatu den enpresak Pleguan eskatzen den klasifikazioa duela erakusten duena, alegia, (Instalazio elektrikoan I Taldea- 7 azpitaldea- D kategoria telekomunikazioetan).

Hirugarrenik.- Lizitatzailerik guztiei behin-behineko adjudikazioa jakinaraztea.

Laugarrenik.- Adjudikaziodunak eskaturako dokumentazioa epe berrian aurkeztuz gero behin-behineko adjudikazioa behin-betiko bihurtuko da eta halaxe jakinaraziko zaie hautagaiei.

Bosgarrenik.- Kontratuaren behin-behineko adjudikazioaren berri ematea **Kontratantearen Perfilean** jarritako iragarki baten bidez.

Toki Erakundearen Antolaketa Araudia, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoak bere 206 artikuluan jasota daukanari jarraituz, esan beharra dago akordio hau jasotzen duen akta ez dagoela onartuta.

Lasarte-Orian, 2009ko maiatzaren 19a.
Jarduneko Alkatea,

Fdo.: Iñaki Múgica Flores,